Aiako Udala
Gozategi 1, 20809 AIA
Telf. 943-131144
aia@aia.eus

ARMENDIGAIN KALEAKO 1 ZENBAKIDUN ERAIKINEKO 4-A LOKALAREN ALOKAIRUA

BALDINTZA PLEGUAK

1.- Xedea.

Plegu hauen xedea da, Armendigain kaleko 1 zenbakidun eraikineko 4-A lokalaren alokairua arautzea da.

Lokalaren ezaugarriak:

Azalera: 25 metro karratu

Komunitateko partaidetza: %4,90

Hartzailea behartuta dago, herritarrentzat-komunitatearentzat proiekzioa izango duen jarduera ekonomiko edo profesionala garatzera. Ez da onargarria izango ez almazen erabilera, ezta ere bizileku erabilera.

2.- Proposamenen aurkezpena.

Interesdunek beraien proposamena kartazal batean aurkeztu beharko dute honako dokumentazioarekin:

a) Lizitatzailearen NAN edo sozietate bat izanez gero, sozietate osaketako eskrituraren kopia bat, Merkatal Errejistroan izena emanda.

b) Lizitatzailearen adierazpena, non ziurtatzen duen, ez dagoela Estatutako 9/2017 Kontratu Legeak ezarritako debekuen artean.

c) Memoria: jardueraren ezaugarriak, lan esperientzia eta herriarenganako izan dezakeen zerbitzua adierazten duena.

d) Dagokion jarduera ekonomikoko epigrafean alta eman izanaren agiria. Jarduera berria bada, kontratua sinatzerako ekarri beharko du.

Interesdunek, beraien proposamenak Udal bulegoetan aurkeztu ditzazkete Udalaren web orrian argitaratu eta hurrengo lan egunetik hasi eta 15 egun naturaleko epean, beti ere, azken eguneko eguerdiko 2ak baino lehen.

Aiako Udala
Gozategi 1, 20809 AIA
Telf. 943-131144
aia@aia.eus

3.- Esleipena.

Proposamenak aztertu eta ontzat eman ondoren, aurkezpen azken egunetik hasi eta gehienez hilabeteko epean, esleipena egingo du Administrazio Kontseiluak zozketa bidez.

Zozketa saio publikoan izango da eta data eta orduaren berri udalaren web orrian jarriko da, gutxienez, bi egun lehenagotik.

4.- Prezioa.

Kontratu honen prezioa 6 euro/metro karratukoa izango da, hau da, 150 euro/hileko (BEZ kanpo). Kontratua indarrean dagoen bitartean, prezioak ez du inolako igoerarik izango.

Kontutan izan behar da, Armendigain 1 Jabeen komunitateko gastuak esleipendunaren kontura izango direla. Baita jarduerak sortzen dituen gainontzeko gastuak ere (ura, argindarra, zaborra…)

5.- Iraupena.

Esleipenaren iraupen 3 urtetakoa izango da, kontratua sinatzen den egunetik hasita. Bi aldeek kontratua amaitu baino hiru hilabete lehenago, gutxienez, kontrakorik azaltzen ez badute idatziz, hiru urtez luzatuko da kontratua.

6.- Araudia.

Lizitazio honi ezargarri izango zaizkio indarrean dagoen araudia espreski plegu hauetan adierazi ez diren arloetan, hala nola, 9/2017 RDL, azaroak 14koa, Sektore Publikoaren Kontratuak arautzen dituena.

Eta Arrendamendu kontratuari berriz, 29/1994 Legea, azaroaren 24koa, Hiri Arrendamenduena.

Aiako Udala
Gozategi 1, 20809 AIA
Telf. 943-131144
aia@aia.eus

E S K A E R A / S O L I C I T U D

ESKATZAILEA / SOLICITANTE:

ORDEZKATUA / REPRESENTADO:

NAN-DNI / IFZ-CIF:

HELBIDEA / DOMICILIO:

AZALTZEN DUT / MANIFIESTO:

1.- Armendigain kaleako 1 zenbakidun eraikineko 4A lokalaren alokairua arautzen duen Pleguak ezagutu eta onartzen ditudala / *Que conozco y acepto el Pliego que regula el proceso de adjudicación del local 4A sito en el edificio de la calle Armendigain nº 1, en régimen de alquiler.*

2.- Eskaera honi, pleguetan eskatzen den dokumentazioa aurkezten dudala / *Que adjunto a dicha solicitud la documentación solicitada en los pliegos.*

Bestalde eta pleguetako 2. b atalean jasotako baldintza betetzen dudala ZIN EGITEN GUT / *Además hago una Declaración jurada de que cumplo con la condición establecida en el punto 2b del pliego.*

Guzti hau kontutan hartuta eta eskaera aurkeztuta, **ESKATZEN DUT** esleipen prozesurako onarpena ematea / *Teniendo en cuenta lo manifestado, SOLICITO se acepte dicha solicitud para que pueda optar al alquiler del citado local.*

Aian, 2024ko ……ren ……..an

En Aia, a …….. de …….. de 2024.

ESKATZAILEA */ SOLICITANTE*